

**HEZKUNTZA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2021eko MARTXOAREN 24ko JARRAIBIDEA, HEZKUNTZA SAILAREN MENPEKO KOLEKTIBOETAN PARTZIALKI ERRETIRATUTAKO PERTSONEK ERRELEBU KONTRATUEI LOTUTAKO ERRETIRO PARTZIALAREN EGOERETAN ZERBITZUAK EMATEKO MODALITATEEI BURUZKOA.

1.- AURREKARIAK.

Parte-hartzearen arloko indarreko legeria betez, erretiro partzialaren aplikazioak jarraitzearen gaia, erretiro partzialaren aurreko planak 2020ko abenduaren 31n bukatu ondoren, landu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Negoziazio Orokorraren Mahaiak 2021eko otsailaren 8an egin zuen bileran.

Ildo horretan, hau adostu zen: otsailaren 12tik aurrera, errelebu-kontratu bat hitzartzeari lotutako erretiro partzialera sartzeko gizarte segurantzaren araudian ezarritako baldintza berriak inplementatuko dira EAeko Administrazioan.

Funtzio Publikoko sailburuordearen otsailaren 23ko 1/2021 zk.ko instrukzioak arautzen ditu erretiratu partzialak, erretiro osoa hartu arte dagozkion lan-orduak egiteko, zerbitzua emateko erabili ahal izango dituen modalitate desberdinak.

2.- HELBURUA.

Errelebu-kontratuaren baldintzak, erretiratu partzialak eta errelebu egiten dion pertsonak zerbitzua emateko modalitatea, eskaerak aurkezteko epea eta erretiro partzialari lotutako beste gai batzuk arautzea du instrukzio honek helburu.

Instrukzio honetan espezifikoki arautzen ez den horretan, Funtzio Publikoko sailburuordearen instrukzioak xedatutakoaren arabera jokatuko da.

3.- APLIKAZIO EREMUA.

Instrukzio hau ondoren aipatzen diren langileei aplikatzeko modukoa da:

- Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaile finkoak.
- Hezkuntza Saileko lan-legepeko langile finkoak.
- Hezkuntza Saileko lan-legepeko Erlijioko langileak.

4.- INDARRALDIA.

Instrukzio hau 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatutako erretiro partzialaren eskaerei aplikatuko zaie.

5.- BALDINTZA OROKORRAK.

Erretiro partzialarengatik kotizaziopeko pentsioa jaso ahal izateko gizarte-segurantzaren araudian ezarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte erretiro-modalitate hau aukeratzen duten lan-legepeko langile finkoek.

Halaber, erakunde kudeatzaile eskudunak ezartzen dituen errekerimenduak, erretiratu partzialak hitzartu behar duen denbora partzialeko kontratuaren lan-orduak betetzeari begira, bete beharko ditu.



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

I.- 2021. URTEAN HASITAKO ERRETIRO PARTZIALAK: BALDINTZAK ETA KONTRATAZIO BALDINTZAK.

Denbora partzialeko erretiro-modalitatera sartzea ez da derrigorrezkoa izango eta instrukzio honen aplikazio-eremuan sartuta dauden lan-legepeko langile finkoek alde zuzenetik erretiroa egin beharko dute eskaera.

a) Sartzeko baldintzak

Erretiro-modalitate hau eskatzen duten langileek lanaldi osoko kontratua izan beharko dute eta denbora partzialeko aldi baterako kontratu bat formalizatu beharko dute; Administrazioak, aldi berean, beste hirugarren pertsona batekin errelebu-kontratu bat formalizatu beharko du.

Gutxienezko adina:

- a) Gertaera eragilearen unean 62 urte izatea, eta 35 urte eta 3 hilabete edo gehiago kotizatuta.
- b) Gertaera eragilearen unean 63 urte izatea, eta 33 urte kotizatuta.

Gutxienezko kotizazio-aldia: 33 urteko kotizazio efektiboak.

Antzintasuna enpresan: gutxienez, erretiro partzialaren data baino lehen-lehenagoko 6 urte.

b) Erretiratu partzialak hitzartutako denbora partzialeko kontratua: ordainsariak eta kotizazioa.

1. Erretiroaren modalitate hau aukeratzen duten langileek denbora partzialeko aldi baterako kontratu bat hitzartuko dute, eskaeraren urtean erreferentziako lanaldi osoaren % 50ekoa.

2. Zerbitzuak emateko aukeratutako modalitatea zein den alde batera utzita, erretiratu partzialak, ezarritako legezko edo hitzarmen bidezko edozein kausarengatik denbora partzialeko lan-kontratua azkentzen ez bada, lanpostuaren % 50eko ordainsariak jasoko ditu eta alta-egoeran jarraituko du Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, erretiro partzialaren datatik erabateko erretirora arte.

3. Kontratu hori erabateko erretiroaren datan bukatuko da eta, edonola ere, **une bakoitzean dagokion erretiroaren ohiko adinean** gertatuko da erretiro hori, Gizarte Segurantzako araudian ezarritako kotizazio-baldintzak kontuan hartuta.

Erretiro partziala hartu duen pertsonak ohiko erretiro-adinera (osoa) iritsi baino lehen erretiratu nahi badu, 2021eko abuztuaren 14a baino lehen jakinarazi beharko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari.

Erretiratu partzialak hitzartutako denbora partzialeko kontratua Sail honekin zerikusirik ez duen edozein arrazorengatik (heriotza edo ezintasun iraunkorra esate baterako) erabateko erretiroaren adina baino lehenago azkentzen bada, Sail honek ez du bere gain hartuko erretiratu partzialak eman zezakeen zerbitzu-denboraren ardura eta, horregatik, zirkunstantzia horregatik ez da inolako zenbatekorik itzuliko, ez pertsona horri, ezta haren kausadunei ere.

**HEZKUNTZA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

4. Lanaldiaren % 50eko ordainsariak eta Gizarte Segurantzako araudiak errelebatutako langileari lanaldi partzialarengatik pentsioaren kontzeptuan aitortzen dion pentsioa bateragarri izango dira.

Erretiroaren saria, dagokionari, ondoren esaten den eran ordainduko zaio: % 50 erretiro partziala hartzeko unean, eta erabateko erretiroa hartzen den unean gainontzeko % 50.

5. Errelebo-hartzailea hautatzea ezinezkoa den kasuetan, erretiro partziala eskatzen duen pertsonari jakinaraziko zaio ezin duela eskaerarekin jarraitu.

c) Zerbitzuak emateko modalitateak.

Zerbitzuak emateko instrukzio honetan jasota agertzen diren modalitateetakoren batek agertu beharko du erretiro partzialaren eskaeran eta Langileak Kudeatzeko zuzendariak onartu beharko du eskaera, kasu bakoitzean eman behar den zerbitzu publikoaren zirkunstantziak kontuan hartuta.

Ikastetxeko zuzendaritzak eman beharko dio erretiratu partzialak zerbitzuak emango dituen aldi konkretuari oniritzia.

Kontratu-modalitate hori arautzen duen lan-legeriak, instrukzio hau aplikatzeko eremuko kolektibo desberdinentzat aldi baterako indarreko kontrataziorako lan-poltsen sistemak arautzen duenak eta errelebia egingo duen pertsonaren egokitasuna ziurtatuko duen Gizarte Segurantzako araudi orokorrak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu errelebu-kontratuak.

Errelebia egingo duenak eman beharreko zerbitzu-aldia zehazteko, zerbitzuak emateko erretiratu partzialak aukeratu duen modalitatea hartu beharko da kontuan. Modalitate hori mota hauetakoa izan daiteke:

1. Urteko prestazioa.

Erretiratu partzialak izango du zerbitzuak urteko konputuan emateko aukera. Horrela egin dezake: zerbitzuak ikasturte osoan emanez edo lanaldi osora gehituz aldi bakar batean ikasturte bakoitzean.

a) Zerbitzuak ikasturte osoan ematea (egunero/astero):**Erretiratu partziala:**

- % 50eko denbora partzialeko kontratu bat hitzartuko da eta erretiratu partzialaren lanaldiaren eta errelebia egingo duenaren aldi baterako lan-kontratu formalizatzen den lanaldiaren batuketa ezin izango da % 100etik gorakoa izan inoiz. Egunero joango da lanaldi partzialeko lanera edo asteko zenbaketaren arabera lanaldi osoak egingo ditu.

Errelebia egingo duena:

- Oro har, lanaldi osoaren % 50eko errelebu-kontratu bat, iraupen konkretukoa, hitzartuko da, erretiratu partziala behin-betiko erretirora iristen den datara arte eta erretiratu partzial horren lanpostu berean.



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

Errelebua egingo duenak aldi berean emango ditu zerbitzuak eta erretiratu partzialaren lanaldia osatuko du.

b) Zerbitzuak ikasturte bakoitzean metatutako aldi batean ematea. Ikasturte horretan dagozkion lanegun/ordu guztiak biltzen dira aldi jarraitu bakar batean:

Erretiratu partziala:

- % 50eko denbora partzialeko kontratu bat hitzartuko da eta erretiratu partzialaren lanaldiaren eta errelebua egingo duenaren aldi baterako lan-kontratua formalizatuko den lanaldiaren batuketa ezin izango da % 100etik gorakoa inoiz izan. Ikasturte bakoitzean metatutako aldi batean emango ditu zerbitzuak. Errelebo-hartzaileak zerbitzu-aldia amaitutakoan lan egingo du (bigarrenik).

Errelebua egingo duena:

- Oro har, errelebu-kontratu bat hitzartuko da, lanaldi osoaren % 50ekoa, erretiratu partziala behin-betiko erretirora iristen den data arte iraungo duena eta erretiratu partzial horren lanpostu berean. Ikasturte bakoitzean metatutako aldi batean emango ditu zerbitzuak, errelebu-kontratuaren hasiera-datarekin bat etorriz.

** 2021/22 ikasturtearen hasierarako langile horiek eskatzen dituzten eszedentzien eta lanaldi-murrizketen eskaerak 2021eko abuztuaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira. Eszedentzia eta lanaldi-murrizketa horiek gutxienez 2022ko ekainaren 30era arte iraungo dute.*

2. Urteanitzeko prestazioa.

Dagozkion lanegun/ordu guztiak biltzen dira, **errelebu-kontratua hasten denetik kontratua amaitzen den arte** (behin betiko erretiroa), aldi jarraitu bakarrean.

Erretiratu partzialak izango du hainbat urteko zerbitzuak aldi batez emateko aukera, hots, erretiro partzialera sartzen den datatik behin-betiko erretirora iritsi arte **eman beharreko zerbitzuak (dagozkion lan-orduak/lanegunak) aldi bakar batean metatuz** (ikasturte bakoitzaren uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte eten daiteke). Erretiro partziala hasten den data kontuan hartuta, egoera desberdinak gertatuko dira:

a) Ikasturtearen hasierari lotutako erretiro partzialak:

Erretiratu partziala:

- Denbora partzialeko kontratuak % 50eko lanaldia izango du. Erretiratu partzialak titularra den lanpostuan eta **etenik gabe** eman beharko ditu zerbitzuak, erretiro partziala hasten denetik **behin-betiko erretirora arte dagozkion orduen/lanegunen % 50 osatu arte**.
- Errelebua egiten zaion pertsonaren lanpostuarekin bateragarri diren beste lanpostu batzuk egotearen baldintzapean egingo da modalitate horretara sartzeko aukera.



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

Errelebua egingo duena:

- Errelebu-kontratua % 100ean hitzartuko da, erretiratu partziala behin-betikoko erretirora iritsi arteko iraupena izango du eta errelebua egiten zaion pertsonaren lanpostuaren kategoria bereko edo desberdineko beste lanpostu batean.
- Erretiratu partzialak zerbitzu-ematea bukatu ondoren, erretiratu partzial horren lanpostuan hasiko da errelebua egingo duena.

b) Ikasturtearen hasiera baino geroagoko erretiro partzialak:

1. ikasturtea amaitu arte:

Instrukzio honen 1. puntuan urteko zerbitzuak emateko ezarritakoa aplikatuko da. *Erretiratu partzialak eta errelebua egingo dion pertsonak plaza bera partekatuko dute %50ean.*

Erretiratu partziala:

- % 50eko denbora partzialeko kontratu bat izenpetuko da eta erretiratu partzialaren lanaldiaren eta errelebua egingo dionaren aldi baterako lan-kontratua formalizatzen den lanaldiaren batuketa ezin izango da % 100etik gorakoa izan inoiz.

Errelebua egingo duena:

- Oro har, % 50eko errelebu-kontratu bat izenpetuko da. Iraupen zehatza izango du -erretiratu partziala behin-betikoko erretirora iritsi arte- eta erretiratu partzial horren lanpostu berean. Errelebua egingo duenak lehenik emango ditu zerbitzuak.

2. ikasturtea eta hurrengoak:

Gainerako zerbitzuak emateko aldiak metatu ahal izateko, **modalitatea aldatzeko eskatu beharko da.**

Erretiratu partziala:

- Bere titulartasuneko den plazan jarraituko du lanaldi partzialeko kontratuarekin, %50ean (aurreko ikasturtean erretiro partziala hartu duenak eta errelebo-hartzaileak partekatu dutena). Gainerako zerbitzuak **etengabe** emango ditu 2021eko irailaren 1etik **behin betiko erretiroa hartu arte legozkikeen orduen/egunen % 50 osatu arte.**
- Errelebua egiten zaion pertsonaren lanpostuarekin bateragarri diren beste lanpostu batzuk egotearen baldintzapean egongo da modalitate horretara sartzeko aukera.

Errelebua egingo duena:



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

- Errelebu-kontratua hurrengo irailaren 1etik aurrerako ondorioekin berrituko da (**errelebo-hartzailea ados badago**). Horiek horrela, % 100ekoa izatera pasako da eta errelebua egingo duenak erretiratu partzialarena ez den beste lanpostu batean emango ditu zerbitzuak.
- Erretiratu partzialak zerbitzuak emateari utzi ondoren, erretiratu partzial horren lanpostuan hasiko da errelebua egingo diona.

II.- URTEANITZEKO ZERBITZUEN PRESTAZIO MODALITATERA SARTZEKO LEHENTASUN ORDENA.

Zerbitzuak metatzeko eskaera guztiei erantzuna emateko adina lanpostu ez badaude, erretiro partzialaren egoerara lehenago sartu diren langileei emango zaie lehentasuna zerbitzu horiek metatu ahal izateko orduan. Hots, langilea erretiro partzialera sartzen den dataren arabera ordenatuz ebatziko dira eskaerak. Langile batzuk erretiro partzialera data berean sartu badira, Saileko prozesuetarako ikasturte bakoitzeko zozketan ateratzen den letraren arabera ordenatuko dira eskaerak.

III.- ESKAERA ETA DOKUMENTAZIOAK AURKEZTEKO EPEAK.

Instrukzio honetan xedatutakoaren arabera jokatzeko duten langileek denbora partzialeko kontratuaren baldintzak, aldeztatik eta berariaz, adostu beharko dituzte Administrazioarekin; zerbitzuak emango dituzten modalitatea batez ere.

a) Erretiro partzialaren eskaerak.

- Urteko edo urteanitzeko prestazioa ikasturtearen hasieraren ondoren:

Erretiro partziala eskatzen duenak eta zerbitzuak urtean (hilabeteak/urtea) edo urteanitzetan ematea aukeratzen duenak, ikasturtea hasi ondoren hasita, erretiro partzialera sartzeko aurreikusitako data baino 2 hilabete lehenago, gutxienez, aurkeztu beharko du eskaera. Kasu horietan, ondorengoak izango dira ikasturte bakoitzean erretiro partzialak formalizatzeko azken egunak:

Lan-legepeko irakasle eta hezitzaile finkoentzat: apirilaren 30a.

Lan-legepeko Erljioko langileentzat: apirilaren 30a

Lan-legepeko langile finkoentzat: maiatzaren 31

- Urteanitzeko prestazioa ikasturtearen hasierari lotua:

Zerbitzuak aldi bakar batean metatuz lehen urtetik erretiro partziala eskatzen duenak 2021eko ekainaren 1a baino lehen aurkeztu beharko du eskaera, egun hori barne. Kasu horretan, erretiro partziala irailean formalizatuko da.

- Eskaera: dokumentazioa eta aurkezteko tokia:

Eskaera -eranskinean agertzen da eredu- Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztuko da eta erretiro partzialarengatik pentsioa jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioarekin batera entregatuko da. Erabateko erretiroaren data zein den ere adieraziko da.

**HEZKUNTZA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariak izango du erretiro partziala onartzeko eskuduntza.

b) Indarrean dauden erretiro partzialetan zerbitzuak emateko modalitatea aldatzeko eskaerak.

Gainontzeko zerbitzuak emateko aldiak metatu nahi izanez gero, Langileak Kudeatzeko zuzendariari **aurkeztu beharko zaio idazkia**. Ekainaren 1era artekoa, barne, izango da idazki hori aurkezteko epea.

c) Erretiro aurreratuen eskaerak

2021/22 ikasturtean erretiro partziala hartu duen langileak erretiro aurreratua hartu nahi badu (erretiroa hartzeko ohiko adinera iritsi aurretik), 2021eko abuztuaren 14a baino lehen jakinarazi beharko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, erretiro partziala hartu duen langileak eta errelebo-hartzaileak lan egin behar duten denboraren % 50 kalkulatzeko.

Hori egin ezean, ezingo du erretiro aurreratua hartu harik eta dagokion zerbitzu-emate aldia bete arte.

IV.- NORBERE ARAZOETARAKO ETA ALDI BATERAKO EZINTASUNARENGATIK BAIMENAK.**1.- Norbere arazoetarako baimena**

Zerbitzuak era metatuan emateko aldiak eskatzen den baimen-egun bakoitzeko gutxitu beharreko ordainsari- eta kotizazio-egunen zehazteko deskontu-formula zehaztuko da sektore bakoitzean.

Errelebu-kontratua duten langileek ikasturte oso bakoitzeko 5 baimen egun izango dituzte gehienez, edo proportzionalki dagokiona bestelako kasuetan, bere arazoetarako, lotuta dagoen erretiratu partzialaren kotizazioari dakarkion kaltea kontuan hartuta.

2.- Aldi baterako ezintasunarengatik baimena.

Erretiratu partziala aldi baterako ezintasunak eragindako baja-egoerara pasatzen bada eta baja horren iraupena ikasturte horretan egin beharko lukeen lan-aldia baino handiagoa bada, ondorioz gabe geratuko da zerbitzuak urteko aldi bakar batean metatuz emateko aukera.

Zerbitzu-premiekin horretarako aukera ematen badute, alta medikua eman ondoren izango da zerbitzuak era metatuan emateko beste aldi bat ezartzeko aukera.

V.- INSTRUKZIO HONEN GARAPENA ETA INTERPRETAZIOA.

Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren Batzorde Paritarioak interpretatuko du instrukzio hau, baita geroago onartu eta gara daitekeena ere.

VI.- ONDORIOEN DATA.

Izenpetu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu instrukzio honek ondorioak.



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

Gasteizen, 2021eko martxoaren 24a

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Blanca GUERRERO OCEJO